



## Koruko Goikoetxea irakaslearekin solasean

Bizitza osoa eman du Koruko Goikoetxea irakaskuntzan eta bere nahia hori ez bazen ere aurten heldu zaio erretiratzeko ordua. 24 urte eman ditu Lasarte-Oriari donostiarrik, horietatik 15 Zumaburu-Sasoetako zuzendari bezala, eta urte horien errepaso egin dugu. Hasiera gogorak izan baziren ere, egindako lana goraiatu du irakasle eta zuzendariak. /6

## Motorzaleen bilkura Mendi Kafe Rock-en seigarren urteurrenean

Larunbat eguerdi eta arratsean motorren burrunba nagusitu zen zenbait unetan Lasarte-Oriako kaleetan. Mendi Kafe Rock tabernak seigarren urteurrena ospatu zuen motorzaleen bilkura batekin. Ia 200 motor gidari etorri ziren hainbat lekutatik Lasarte-Oriara. Goizean era eta tamaina ezberdinetako motorrak eta aspaldiko bi auto zahar Udaltxe aurrean izan zituzten aparturik tabernan hamaiketako egiten zuten bitartean, gero, eguraldi oso ona ez bazen ere Kostako bidetik joan etorria egin zuten eta 14:30ak inguruan Araetara abiatu ziren motor gidari eta lagunak bazkaltzera. Arratsaldeko festa luze joan zen, *Transistores 50* taldearen kontzertua izan baitzen bazkal-ostean eta ondoren lagunarteko giro onak jarraitu zuen bai jatetxean eta baita gauean Mendi Kafe rock tabernan ere. •



Eguraldiari aurre eginez, motorzale ugari bildu ziren San Pedro elizaren atzealdean.

## Bizikleta festa baldintzatu zuen eguraldi kaxkarrak

Mugikortasun Asteari bukaera eman zion Lasarte Oriako Haurren III. Bizikleta Festa ez zen antolatzaileek nahi zuten eran egin ahal izan ostiral arratsaldean Andatza Plazan. Batek herrian zehar egin behar ziren bizikleta-ibilaldiak bertan behera gelditu ziren euri zaparrada handia ari zuelako eta bizikleta festa Landaberri ikastolaren Garaikoetxea erakinek aterpean egin zen. Ez zen beste urtetan beste haur bildu baina bildu zirenek oso ondo pasa zuten. •



## GIZARTEA/4

Lau hilabetetan proban egongo da herri barruko autobus berria

## ALBISTEA/5

I. Baita Rock Jaialdia sortu du Esna Hadi kultur elkarteak

## KIROLA/6

Iñaki Racamonde bikain Euskadiko Klase-1 auto txapelketan

# amaraun ludoteka



Eskulanak, lorezaintza, txotxongiloak, mozorroak, ipuin kontaketak, pijama festa...

GUAY pasako dugu!



# Mendi Igoeren txapelketaren bila

Iñaki Racamonde Euskadiko automobilismo txapelketako Klase-1eko lehen postuan dago

Euskadiko Mendi Igoeren txapelketa maiatzean hasi zen. Udana, Gorla, Aia, Urkiola, Arrate, Leintz Gatzaga eta Urrakiko igoerak dira aurten daudenak. Lehen-go larunbatean, irailaren 18an, Leintz Gatzagan lehenengo izan zen bere mailan eta denboraldia amaitzeko proba bakarraren faltan, Urrakiko igoera, Iñaki Racamonde lasarteoriatarrek berriro ere bere kategoriari irabazlea izateko aukera asko ditu.

Lehen-go larunbatean, irailaren 18an, denboraldiko seigarren proba, Leintz Gatzagako igoera zegoen jokoan eta Iñaki Racamonde Klase-1 kategoriari irabazlea izateko aukera asko ditu.

Honetaz gain, urte askotan antolatu ez den proba dela eta hasieran, 4 kilometrotako proba izan behar zuela azaldu digu.

Iñakiren hitzetan, "asfaltatze lanengatik, 2,6 kilometrotako igoera egin zen. Beraz, errepidea asfaltatu berria zegoen. Nik ez nuen arazorik izan, gure kotxeak edonon

ibiltzen baitira, baina barke-tek arazo gehiago izan zuten."

## Denboraldi ona

Racamonde oso kontent dago aurtengo denboraldiarekin, "denboraldian zehar guztia primeran joan da. Autoak ez du arazorik eman eta nire kategorian lehenengo postuan nago".

Arestian aipatu bezala, sei proba lehiatu dira eta bi probatan, Leintz Gatzagako kontuan izanik, irabazle izan da eta besteetan bigarren postua eskuratu du.

## Txapelketa eskura

Horregatik, ziur dago Racamonde: "nire mailan lehenen-



Iñaki Racamonde herritarrek proba bat falta du Euskadiko Mendi igoeretan bere kategoriari irabazteko.

go naiz eta puntu batzuetako aldea dago ni eta bigarren sailkatuaren artean. Beraz, ez dut uste, Euskadiko Mendi Igoeren txapelketa lortzeko arazorik egongo denik," esatean.

Hala ere, denboraldiko azken proba falta da, urriaren 24an, Azpeitian Urrakiko igoera lehiatuko da.

Iñakik adierazi digunez, "proba polita eta ezaguna da.

Lan ona egin dezaket". Proba hau lehiatu ostean, urte osoan buruan izan duen saria izango du Iñaki Racamondek eskuetan, Euskadiko txapelketa garaikurra. •



## Miriam Infante Europa mailan lehiatzen

Ostadarreko nesken futbol taldeko Miriam Infante Estatu-ko selekzioaren deia jaso du Herbeheretan, urriaren 2tik 9ra ospatuko den Europako

17 urte azpiko minitorneon parte hartzeko.

Aste honetan, Infante Madrilan egongo da selekzioaren konzentrazioan. •



## Ostadarren porroak irabazleak pozik.

Ostiral arratsaldean banatu ziren Ainhoa tabernan Ostadar K.F.-ak antolatzen duen porroko diru-sari eta zotz egiten diren urdaiazpikoak. Batetik Vueltako sariak eman ziren: Ilargin egindako TorTor izan da irabazlea, 1.057 punturekin eta oso hurbil bigarrena Ainhoan egin zen Jmas-en boletoa 1.050 punturekin. Bestalde, urteko hiru porren irabazleari, Ilargi tabernan egindako "Earra Mandukia" txartelari, 1.600 eurotako saria eman zizaitza ostiralean. Berak lortu ditu puntu gehien Tour, Giro eta Vueltako porretako puntuak batuz.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala  
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta  
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA  
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publikitate@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

# Akordeoi jaialdirako guztia prest

Paris-Moscou bikotea eta Accordion in Modern taldeek joko dute jaialdian

**Z**ero Sette Akordeoi Orkestrak, Udalaren laguntzarekin antolatzen duen akordeoi jaialdiaren VII. edizioa da aurtengoa. Larunbatean, urriaren 2an akordeoi soinuuz beteko da Lasarte-Oria. Aurtengo edizioan *Duo Paris-Moscou*, *Accordion in Modern* talde kataluniarra eta *Zero Sette* akordeoi orkestrak hartuko dute parte Manuel Lekuona Kultur Etxean ospatuko den ekitaldian.

Arratsaldeko 19:30ean emango zaio hasiera jaialdiari. Lehendabizi *Accordion in Modern* kataluniar taldearen txanda izango da eta Suite Moderna, Jig (Suite Irlandesa), Libertango eta Russiche Fantasie piezak joko dituzte. Ondoren, *Paris Moscou* bikotearen txanda etorriko da eta *Hommage à paco*, *Boutade*, *L'hiver*, *Figaro*, *Coucou* piezak eskainiko dituzte. Azkenik *Zero Sette* Eskualo, Duke Ellington in accordion eta Iñigo Peñaren Dharma abesti berria estreinatuko du.

## Errealitatearen doktrina

*"Sufrimenduz libratzea jakintza perfektura iritsiz naturaren ezagutzaren bitartez, horrela jaiotza eta heriotzen zikloetatik libratuz"*, hau da Dharma hitzarentzat budisten definizioa.

Iñigo Peña, obraren egileak abesti honen bitartez pertsona guztiak gure barrualdean, nahiz eta arazo eta

sufrimenduak izan, dugun bizipoza islatu nahi izan du. Horretarako, sanskrito termino hau aukeratu. Hitzak sonoritate propioa izateaz gain, esanahi espirituala du.

Abestiaren erdigunean dagoen zatiari esker, ondo ezberdintzen dira dauden hiru zatiak. Dharma obra eritmitikoa da, etniko eta antzinako kutsuarekin. Armonia modala eta perkusioaren tratamendua nabarmenduz.

## Accordion in modern

Kataluniatik etorritako taldea joko du larunbatean Lasarte-Oriako kultur etxean. Accordion in moder 1997an sortutako taldea dugu. Hasiera batean, akordeoi laukote bezala jaiotzen zen, eta errepertorio klasikoa zuen. Taldeko kide batzuk aldatzen joan ziren heinean, musika estiloa eta taldearen izena aldatzen joan zen. Jazz eta musika modernoa jotzen hasi, bateria eta baxua taldean barneratu eta egungo izaera osatzen joan zen.

Taldea Bartzelonako Musika Kontserbatorio Gorenean titulaturako hiru akordeoi irakasleen bitartez sendotu zen.

Talde honek bere estiloaren bitartez akordeoiaren alderdi ezezagunenak ezagutzera eman nahi ditu, bitxikeri bat gehituz, bateria eta kontrabaxuaren erabilpena. Fusio honen bitartez musika erakarria, indartsua eta publiko zabalera erakartzen duena egin



Accordion in modern talde kataluniarra, akordeoiaren alderdi ezezagunak lasarteoriatarrei erakusteko prest iritsiko dira

dute. Errepertorio zabalera eskainiko dute. Hala nola, Miller, Gershwin edo Piazzollaren "nuevo tango" estilo klasikoa, eta jazz, folklore errusiar eta irlandera eta musika modernoa. Guztiak nahastuz.

## Duo Paris Moscou

Musikak askotan aparteko topaketak burutzen ditu, pertsonalitateen arteko alkimia, konplizitatea eta pasio bateratu baten osagarritasuna akordeoian. *Duo Paris Moscou* bikotearen sorrerarekin honen ilustrazio perfektua eman zen.

1997an, musikan adituak izanik, Domi eta Romanek bidai musikal bat proposatzen hasi ziren, garai eta estilo ezberdinekin, Paris eta Mosku.

Bi unibertso, bi kultura,



Bikote honek akordeoiaren bidez bidai zoragarria egiteko aukera emango digu.

jolasteko bi modu... Musika-ren bi diseinu; bata barietate frantsesera bideratuta eta beste errusiar musika tradizional klasikora.

Romanen umorearekin, eta Domiren garrarekin, proposatzen dizkiguten bidaiak beti zoriontasun eta alaitasun momentuetan bihurtzen dira. •

## Irailaren 29an, greba deialdia

CCOO eta UGT sindikatuek irailaren 29an, asteazkenean, greba egiteko deialdia egin dute. CNT eta ESK sindikatuek, besteak beste, bat egin dute Estatuak onartutako lan erreformaren baldintzen aurka lanuztearekin.

Euskal Herriko gehiengo sindikala, ELA, LAB, EILAS eta Hiru, ordea, ez datoz bat greba deialdi honekin, izan ere, aipatutako sindikatuek ekainean egin zuten greba orokorra egiteko deialdia.

## CNTrren deia

Lasarte-Oriako CNT kideek herriko langile guztieei greba eta mobilizazioetan parte har dezaten dei egiten dute, "lan erreforma basati honen kontra borrokatu behar dugu eta



Rudian, ekaineko greba orokorrean lan erreformaren aurka egin zen manifestazioa.

pasa diren bi greba orokorretan bezala parte hartuzera deitzen dugu. Denok Grebara!!!"

Lasarte-Orian enkarteladak eta piketeak antolatu ditu sindikatu honek eta Donostian

grebaren aldeko plataformaren manifestazioan ESK, epk, CGT, Antikapitalistak, eta hainbat taldeekin batera parte hartuko duela jakin arazten du. •

## TTAKUN K.E.

### Argazkigintza ikastaroa

Argazkien mundua hainbeste aldatu den honetan, batzuk diapositiben garaian geratuta dira. Horregatik, Ttakunek argazkigintza ikastaroa antolatu du.

Oinarriko ikastaroa da, hain erraz egiten diren argazkiak modu txukunean ordenagailuan jaso eta diaporama edo argazki muntaiak egiten ikasteko.

Ikastaroa urriaren zehar egingo da, larunbata goizetan, 10:30etik 12:30era. Beraz, saioak urriaren 2, 9, 16, 23 eta 30an izango dira. Ttakun kultur elkartearen eskainiko da ikastaroa eta prezio 15 eurotako izango da. Argazkigintza ikastaroan parte hartu nahi duenak 943 371 448 telefonora deitu behar du. Izena emate epea irailaren 30era arte egongo da irekia. •

## UDALTAZAINGOA

### Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, diru-zorroa, urrezko katea, zilarrezko zintzilikarioa, urrezko aliantza Jose Luis grabaketarekin, hiru bizikleta, Shiroko markako motozikleta kaskoa, Samsung markako segapotoa, zilarrezko pulsera eta kamiseta beltz bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horretarako Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

# Herriko autobusa proban

Lau hilabetez, herriko kaleetatik barrena ibiliko da TSSTren mikrobusera

Lasarte-Oriako auzo elkarteek urteak daramatzate eskaera egiten, Udalak herrian barrena ibiliko den autobusa jartzeko. Duela bi urteko mugikortasun astean, proba egin zen. Orduan, doan zen. Lau hilabetez, egongo den proba honetan, ordea, herritarrek ordaindu beharko dute, "zerbitzua martxan egongo balitz bezala."

**G**aur goizean, hiribusa jarri da martxan. Ostiralean, Jesus Zaballos alkateak, Martin Moreno Zerbitzu Publikoetako batzordeburuak eta Santiago Sarasola, TSSTko gerenteak zerbitzu berri honen nondik norakoak azaldu zizkiguten prentsa eta udallexera hurbildu ziren auzo elkarte ordezkariei.

Lasarte-Oriako auzo elkar-teen etengabeko eskaerari erantzunez eta herritarren mugikortasuna eta garraio publikoaren eskaintza hobetu nahian hiribusa ezarri da gure herrian.

Hala ere, "krisia dela eta, Udalak eta auzo elkarteek zerbitzua proban jartzea erabaki genuen" azaldu zuen Zaballos alkateak.

Era honetara, TSSTko mikrobusera lau hilabetez ibiliko da gure kaleetatik barrena. "Udalak eta auzo elkarteek hiru hilabete adostu genituen, baina TSSTk konpainiak epe hori handitu du beste hilabetez. Eta bere gain hartuko du gastu hori," azpimarratu zuen alkateak.

## Ordainketa

Proba hau zerbitzua martxan egongo balitz bezala egingo da beraz, "jendeak ordaindu behar du."

Esku dirutan egiten duenak euro bat ordaindu beharko du; Lurraldebusako txartela

duutenek, berriz, txartelaren beharpenak izango dituzte, hau da, 0,73 euro ordainduko dituzte lehenengo berrogei bidaietan, zerbaki horretatik 70. bidaira, 36 zentimo eta kopuru horretatik gora, 0,12 euro.

"Lurraldebusako txartela erabiltzen dutenei herriarteko eta hiribuseko bidaiak gehitu-ko zaizkie, beraz, beharpen handien onuradun izan daitezke," azaldu zuen alkateak.

Honetaz gain, Antxisu eta Zabaletako auzotarrek herriarteko autobusa eta hiribusa, biak erabili ditzakete bilete bakarra ordainduz. "Beti ere, Lurraldebusako txartelarekin ordaintzen badute eta aldaketa hori, 30 minututan egiten bada," aipatu zuen Zaballosek.

## Geltokiak eta ordutegia

Zerbitzu hobea ematearren, ibilbideak 26 geltoki ditu, ikus ondoko grafikoa.

Horietako 11 herriarteko autobuseko geralekuak dira eta beste 15ak kartel batekin identifikatuko dira.

Mikrobusera Antxisu Bailaran hasiko du ibilbidea 7:45ean eta azkena, 20:15ean izango da. Ordutegi zabalagoa, beheko koadroetan ikus daitezke.

Beraz, ordu erdira igaroko da autobusa geltokietatik, geltaldi teknikoetako orduetan



Udal ordezkariek, TSSTko ordezkaria eta herriko auzo elkarteetako ordezkarietako batzuk hiribuseko geralekuko kartelarekin.

izan ezik, eguerdian 11:45 eta 12:15en artean eta arratsaldean 15:45etik 16:15era.

"Ordutegi hori minutura neurtua dago, beraz, herritarrei sentsibilizatzea eskatzen diegu eta kotxeak ongi aparkatzea," adierazi zuen Santiago Sarasola TSSTko gerenteak.

Era berean, alkateak jakin arazi zuenez, "Kultur etxe eta Pablo Mutiozabal aldean dauden trafiko arazoak direla eta, bertan aurrekusiak zeuden geltokiak murriztu behar izan ditugu, autobusen frekuentzia mantentzeko."

## Emaitzak

Proba amaitzean, erabileraren datuak aztertuko direla adierazi zuen Jesus Mari Zaballos alkateak, "auzo elkarteekin bildu eta zerbitzua mantentzea komenigarria den erabakia da." •

## Autobusaren ibilbidea



- Antxisu
- Oria-Oria Etorbidea 19
- Esperanza- Zirkuitu ibilbidea 17
- Arranbide-Zirkuitu ibilbidea 3 - eskailera mekanikoak
- Kotxeras
- Nagusia 63
- Zumaburu- Nagusia 41
- Bekokale- Andre Joakina Enea
- Sasoeta- Sasoetako rotondan
- Etxe Alai- Buenos Aires 18
- Larrekoetxe
- Zabaleta-plazan
- Bueno Aires-Depositoaren bidean
- Institutua
- Goiegi
- Atsobakar- Donosti Etorbidea 3
- Dorretxea- Nagusia 4
- Ola- Nagusi eta Ola kale artean dagoen rotonda
- Jubilatua
- Dia- Nagusia 50
- Kotxeras
- Arranbide-Txartel kalea 5 - eskailera mekanikoak
- Esperanza- Txartel kalea 19
- Karmen- kapera parean
- Txitxardin- Oria etorbidea 12
- Antxisu

## Autobusaren ordutegiak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Cocheras
7:45	7:55	8:00	8:05
8:15	8:25	8:30	8:35
8:45	8:55	9:00	9:05
9:15	9:25	9:30	9:35
9:45	9:55	10:00	10:05
10:15	10:25	10:30	10:35
10:45	10:55	11:00	11:05
11:15	11:25	11:30	11:35
12:15	12:25	12:30	12:35
12:45	12:55	13:00	13:05
13:15	13:25	13:30	13:35
13:45	13:55	14:00	14:05

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Cocheras
14:15	14:25	14:30	14:35
14:45	14:55	15:00	15:05
15:15	15:25	15:30	15:35
16:15	16:25	16:30	16:35
16:45	16:55	17:00	17:05
17:15	17:25	17:30	17:35
17:45	17:55	18:00	18:05
18:15	18:25	18:30	18:35
18:45	18:55	19:00	19:05
19:15	19:25	19:30	19:35
19:45	19:55	20:00	20:05
20:15	20:25	20:30	20:35

# Kaleetan bizia egon dadin

Esna Hadi kultur elkarteak I. Baita Rock Jaialdia antolatu du urriaren 2rako

Lasarte-Oriako kaleetan kultur ekintza gutxi egiten direla ikusirik, lagun talde batek Esna Hadi kultur elkarte sortu du eta urriaren 2an, larunbatean, I. Baita Rock Jaialdia antolatu dute. Horregatik, elkarteko kideekin bildu gara Esna hadi eta Rock Jaialdiari buruz gehiago jakiteko.

Nerea EIZAGIRRE

Lagun talde batek sortutakoa izan arren, indarrez hasi da lanean Esna Hadi kultur elkarte. Bere helburu nagusia, Lasarte-Oriako kaleei bizitza ematea da.

"Lasarte-Orian egiten diren kontzertuen kopurua jaitxi eta kalean gero eta ekimen gutxiago egiten direlako, ekimenak leku itxietan egiten direlako eta giza-dinamizazio gutxi dagoelako sortu dugu elkarte", azaldu digute. Egoera kaxkar hori aldatu nahi dute: "Gure asmoa kale ekintzak antolatzea, kontzertuak edo beste moduko dinamika kulturalak, erakusketak, etab. egitea da. Kalean bizitza egotea eta honetan, berriro ere, bizitzea," aitortu dute.

## Guztiei irekia

Elkarte sortu berria denez, ez dute biltzeko lekurik, "tabernan edo etxeetan biltzen gara orain," azaldu digute eta Udalari lokala uzteko eskaria egiten diote.

Hala ere, "hemendik aurrera, hilerok bilerak egiteko asmoa dugu eta jendeari irekiak izango dira" aipatu dute.

"Edonork parte hartu dezake. Bakoitzak bere ideiak eman ditzake. Horiek aztertu eta ideia interesgarriren bat badago aurrera atera daiteke. Beti ere, kalean egin daitekeen ekimena bada," atxiki dute.

Elkarterekin harremanetan jarri nahiez gero, esnahadielkarta@hotmail.com edo Sasotetako Udaberri tabernan galdetu dezakete interesatuek.

## I. Baita Rock jaialdia

Eta gauzak honela, hurrengo larunbatean, urriaren 2an, I. Baita Rock jaialdia antolatu dute, Andatza plazan

Jaialdi hau "herriko jendea biltzeko era bat da eta, era berean, elkartearen aurkezpe-



Besteak beste, herriko Aurka taldeak parte hartuko du I. Baita Rock jaialdian.

na" izango da taldeko kideek azpimarratu dutenez.

Eguerdiaren, poteoa egingo dute: Manuel Lekuona kultur etxetik atera eta tabernaz taberna Andatza plazaraino egingo dute bidea.

Baina berezia izango da poteoa hau. "Txaranga bat izango dugu eta punk eta rock bertsoak egiten ditu. Kontzertuaren antzerakoa izango da, baina kalejiran," azaldu digute.

Ostean, 15:00ak aldera babarrun-jana izango da Andatza plazan.

Txartelek 10 euro balio dute eta Udaberri, Ilargi, Jalgi, Obelix eta Sustrai tabernatan daude salgai.

Antolatzailerak eskaera bat egiten diete babarrun-janera joan nahi dutenei, "sarrera lehen bait lehen erosteko. Era honetara, azkarrago antolatu ahalgo ditugu janari prestaketa, etab."

Arratsaldean, 18:00etatik aurrera kontzertuak egongo dira.

## Herriko taldeak

Sutura, El Trono de Judas, Aurka, U.K. Bill, R eta Desperpicio dira karteletan agertzen diren taldeak.

Tamalez, berri txarra eman digute antolatzailerak, "Desperpicio ezin du jo, bateria joleak istripua izan duelako. Hala ere, beste talde baten bila gabiltza, larunbatean, jendeak sei talde entzun ahal izateko."

"Pena handi ematen digu herriko talde batek ezin parte hartu izanak. Herriko taldeak egotea nahi genuen eta haiek protagonistak izatea, izan ere herriarentzat egiten dugun jaialdia da," gaineratu dute.

## Laguntza

Jaialdiaren antolakuntza guztia elkartearen esku joan da eta herritarren laguntza beharrezkoa dute.

Laguntza emateko hainbat bide daude: batetik babarrun-janeko sarrera erostea da laguntzeko modu bat. Bestetik, antolakuntzan laguntzea, "egun horretako ekintza desberdinetan jendea behar dugu," aipatu digute eta gonbita egin dute, "lagundu nahi dutenek, larunbatean, goizean, 9:00ak aldera Andatza hurbiltzea besterik ez dute edo emailera mezu bat bidali eta listo."

"Beste era bat, jaialdian jarriko den txosnan edaria erostea," adierazi digute.

## Boletoetan akatsa

Eta honetaz gain, zozketa baterako boletoak atera dituzte, "sariak mariskada eta nekazal turismo batean egonaldia dira,"

Boleto hauek Sustrai, Udaberri eta Obelixen daude salgai euro batean.

Honen harira, boletoetan akats bat dagoela jakin arazi nahi dute elkarteko kideek. Izan ere, urriaren 2ko ONCEko zozketako azken hiru zenbakiek erabakiko dute saritua eta ez azken lauek, boletoetan dioen bezala.

Azkenik, Esna Hadi elkarteak eskerrak eman nahi dizkie taldeei, Udalari, tabernei eta laguntzera hurbildu diren lagunei. •

## I. Baita Rock Jaialdia

### URRIAREN 2AN

12:00etan, kalejira poteoa  
15:00etan, babarrun-jana,  
Andatza plazan  
18:00etan, kontzertuak,  
Andatza plazan:

Sutura  
El Trono de Judas  
Aurka  
U.K. Bill  
R

Taldea zehazteko



**SALAGALA**

Ostiralean salsa (sarrera dohainik 00:30ak arte)

**ZATOZ ZURE DISKOTEKA BERRIA EZAGUTZERA!**

Larunbatean  
17:30ean areto dantzak eta musika zuzenean  
23:30ean diskoteka

**GIRORIK HOBERENA LAGUNARTE PAREGABEAN!**

Galarreta Jai-Alai Frontoia  
Hernani 20120  
Tel.: 943 333 116  
www.sala-gala.com

Igandetan  
17:30ean dantza eskolak eta animazioa Fermin eta Nataliaren eskutik (salsa, merengea, cha cha cha...)  
Areto dantzak 21:30ak arte.

Koruko Goikoetxea Irakaslea eta Sasoeta-Zumaburuko zuzendari ohia

# “Euskarekiko jarrera asko aldatu da”

■ Egun martxan dagoen eskola kontseiluaren bultzatzaileetako bat izan zen Koruko  
■ 24 urtetan izan da Sasoeta-Zumaburun, azkenengo 15 urtetan zuzendari lanetan

**Asko eta asko, 65 urte bete eta erretiroa hartzeko desiratzen dauden bitartean, beste batzuk penaz hartzen dute. Hain zuzen ere, horixe da Koruko Goikoetxearen kasua. Bere bizitza osoa irakaskuntzan eman eta gero, pasa den urtean iritsi zitzaion erretiroa hartzeko eguna. 24 urte izan da herrian irakasle, horietatik 15, Zumaburu-Sasoetako zuzendari bezala. Erretiroa bizitza aldaketa da erabat, horretara moldatu eta bizitzaz disfrutatzeko garaia.**

Itxaso MORENO

Ezaguna da oso Koruko Goikoetxea Lasarte-Orian. Jaiotzez donostiarra, bizilekua ere bertan du, baina bihotza erdibitua: donostiarra eta lasarteotarra. Urte ugari egin ditu gure herrian maistra moduan. Herriko ume asko hezi dira berarekin. Gurasoen artean aski ezaguna da beraz. 24 urte herrian irakasle, eta 15 zuzendari karguetan. Berekin bildu gara, urte guzti horiei buruz aritzeko.

## Nola izan ziren zure hastapeak irakaskuntzan?

Nire bizitza profesionala Usurbilen hasi zen. Gero Iruñera joan nintzen, Urnietara eta azkenean Lasarte-Oriara. Duela 24 urte lurreratu nintzen herri honetan.

## 24 urte eta horietatik 15 zuzendari bezala...

Lehendabizi Andatza Plazan zegoen Ikastolan hasi nintzen haur hezkuntzan. Hor ginela zuzendaritzan parte hartzeko talde bat osatu genuen. Ondoren, lehen hezkuntzara pasa eta Sasoetako zuzendari bihurtu nintzen.

## Elkartu gabe zeuden oraindik Zumaburu eta Sasoeta...

Hori da. Mapa eskolarra egin arte ez ginen bi zentroak elkartu. Beraz, Sasoetako zuzendaria erretiratu zenean, ni jarri nintzen buru. Jakina da inork ez duela kargu hori nahi. Ilusioz sartu ginenean zuzendaritzan euskara bultzatzeko, eta gero mapa eskolarra etorri zenean bi ikastetxeen fusioa egin behar izan genuen. Egoera fuertea izan zen.

Bi ikastetxe ginen, ezaugarri antzekoekin, baina ezberdinak. Baina zorionez, oso ondo moldatu ginen guztiak. Eta orduetik ni izan naiz zentroaren zuzendari, 15 urtez egon naiz kargua betetzen.

## Nola gogoratzen dituzu lehenengo urte horiek?

Urte oso gogorrak izan ziren. Gogorra alde batetik, haur hezkuntzako ume kopuruak oraindik oso handiak zirelako. Baina oso garai onak bestetik, aurrerago zuzendaritza taldea osatuko zuten nire lankideak jada hemen zeudelako. Gainera, umeak B ereduari sartzen zituzten gurasoek, oso jarrera ona zuten. Horrek asko lagundu zuen. Talde handiak izan arren, jarrerak oso onak ziren.

Orain kalean ikusten ditudanean ilusio handia egiten dit. Nahiz asko ez ditudan orain ezagutzen.

## Urte hauetan nola aldatu da euskarekiko jarrera?

B ereduari gailentzen hasi zen A ereduarekiko. Eta egun, D ereduari da matrikulazioetan garaile. Eskolak lan asko egin behar izan zuten euskaren presentzia nabarmentzeko. Eta egun emaitzak argiak dira. Hala ere, ez nahiko genituzkeen guztiak. Talde lan handia burutu genuen.

Kontuan izan behar da gure ikastetxean hasi ginean bazeudela irakasleak euskaraz ez zekitenak, baina bere aldetik asko jarri, eta duela urte dezente klaustro gutzia euskaldun bihurtu zen.

## Nola aldatu da irakasleekiko jarrera? Nabaritu zenuten?

Lehen irakasleak arrazoi osoa zeukan eta honek esaten zuena, egin egiten zen. Orain dela urte batzuk egoera horri buelta eman zitzaion, eta arrazoi gutzia ikasleek esku geratu zen. Okerrena, horren eragileak etxean gurasoengandik entzuten zutenagatik eman zela. Baina argi, ume zehatz batzuen kasua izan dela.

Gure ikastetxean zorionez ez da irakasleekiko erasorik eman. Egun diren arazoak, ume konkretuekin eman dira.

Bizitza tokatu zaien egoeratik, eta hauekin lan asko egin behar izan dugu, berreziz, eta euren etxekoan laguntzarik gabe.

Baina orokorrean Sasoeta-Zumaburuko umeak finak dira eta izan dira beti.

## Beraz, urte guzti hauetan egindako lanen fruituak ikusten hasi dira.

Zuzendaritza taldeak lan izugarria egin du gure proiektua aurrera ateratzeko, eta ondo ateratzeko. Eta batez ere, umeak gure ikastetxetik ondo heziak ateratzeko.

## Nolakoa izan da zure bizitza profesionala?

Askotan esan badut ere, oso gustura nengoen lanean. Oso momentu gogorrak pasa ditugu, batez ere zuzendaritza lanean, baina oso gustura egon naiz. Atzera begira, bizipen pertsonal ugari eramanen ditut, lankideak izateaz gain lagunak izan gara.

Gurasoekin izandako harremanak ere oso onak izan dira. Oso esperientzia positiboa bizi izan dut. Oraindik faltan botatzen dut lana, denbora gutxi pasa baita erretiratu naizenetik.

Kontent nago burututako lanarekin. Poza hartzen dut egun eskolara hurbiltzen den norbaiti umeak euskaraz zuzentzen ikustea.

## Anekdotarik?

Anekdotak ugari. Positiboak gehienak, baina gertaera gogor batek markatu ninduen gehien. Gure irakaslea zena, orain dela 15 urte bikiki erditzerakoan hil zenean.

Oroitzapen gogorra eta ahaztezina.



Jende gutxiak daki baina bere omenez sagarrondo bat dago Sasoeta-Zumaburun landatuta.

## Nola dago egun Eskola Kontseilua?

Pasa den urtean egin genuen lehenengo bilera. Lehenengo bidea eratuz. Ikastetxeak eta guraso elkarteak eskatutako zerbitu izan zen. Ez dakit noraino iritsiko diren, bidearrak ezarriak daude. Baina askotan horrelako organoak ez dira aurrera ateratzen. Hala ere, guraso, irakasle, udaletxea elkarrekin lanean ari dira gogor.

## Lankide, guraso eta umeek omenaldia egin zizuten...

Oso hunkigarria izan zen momentua. Agurrak oso gogorrrak iruditzen zaizkit, baina gurasoak oso ekitaldi polita antolatu zidaten eta irakasleak bertso polit bat kantatu. Gainera, orain dela gutxi nire bizitza laborala laburtzen duen argazki albuma oparitu didate.

Oso polita da, eta argazkiak begiratzen ditudanean konturatzeko naiz gauza asko eta jende ugari pasa dela eskolatik.

## Donostiarra izanik, Lasarte-Oria gutxi bisitatuko duzu.

Oraindik etortzen naiz. Eskolara gehienbat, irakasleekin lagun harremana dut, eta hori ez dut galdu nahi. •



## Omenaldian lankideek Korukori kantatu zioten bertsoa

Horrenbeste sentimendu oroitzapen ta bizipen

bertso batean laburtzen sarritan ez da jakiten.

Lehena zinen zu Koru beti lanari ekiten

urte luzetan euskara ta ilusioak pizten

laguntza eske joanda ez duzu aterik txuten

irriparra ezpainetan ta ezin meriturik ken

nahiz ta bazoazelako guri malko batzuk irten

segi ezazu bizian zure bidea egiten. •

Egunero

**Erakusketa**

GOIZANE MENDIZABALEN paisaiari argazkiak izango dira ikusgai. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan zehar.



Larunbata, 2

**Jaialdia**

I. BAITAROCK JAIALDIA ospatuko da Andatza Plazan.

Eguerdiari hasiko dira poteoarekin erdigunetik, ondoren babarrun-jana egongo da plazan bertan. 18:00etatik aurrera hainbat taldek hartuko dute parte jaialdian: Sutura, El trono del judas, UK Bill, R Aurka eta zehaztu gabeko talde bat.

Asteartea, 5

**Ipuin-kontalaria**

IPUINAREN ORDUA Pello Añorgaren eskutik 4 eta 5 urteko haurrentzat. Urteak errespetatu egin behar dira eta haurrek bakarrik egongo dira. Behin ipuina hasi eta gero, ezin da gelatik atera. Manuel Lekuona Kulturetxeko haurren liburutegian, 18:00etatik aurrera.

EUSKARAZ.



**Akordeoi jaialdia**

LASARTE-ORIAKO VII. AKORDEOI JAIALDIA ospatuko da larunbatean Zero Setteren eskutik. Jaialdian, Zero Sette orkestrarekin batera Paris-Moscou bikote frantziarra eta Accordion in Moder, Sabadellgo boskotea arituko dira.

LARUNBATA 2  
KULTURETXEAN 19:30EAN  
BIETARA

Osteguna, 7

**Hitzaldia**

HITZ EGIN DEZAGUN GALERAZ ETA DOLUAZ HAURREKIN ERE hitzaldia eskainiko du Josune Martiarena psikologo klinikoak 7 urtera arteko haurren guraso eta hezitzaileei zuzenduriko hitzaldien zikloen barruan Udalaren Sanitateko Departamentuak antolatuta. Kulturetxean, 18:00etan. GAZTELANIAZ

Asteazkena, 20

**Ipuin-kontalaria**

IPUINAREN ORDUA Koruko Zurutuzaren eskutik 6, 7 eta 8 urteko haurrentzat. Urteak errespetatu egin behar dira eta haurrek bakarrik egongo dira. Behin ipuina hasi eta gero, ezin da gelatik atera. Manuel Lekuona Kulturetxeko haurren liburutegian, 18:00etatik aurrera, EUSKARAZ

**Liburutegiko ordutegia**

Astelehenetik ostiralera 10:00etatik 13:00era  
eta 17:00etatik 21:00era  
Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Telefonoa: 943 376181

**Oharrak**

**Odola ateratzeak**

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan gaur astelehena, hilaren 27a, arratsaldeko 18:30etik 21:00etara. Anima zaitzete, odola ordezkazina da eta!

**Udako Txokotako argazkiak urrian**

Udara honetan, uztaila eta abuztuari, Ttakan Kultur Elkarteak antolatutako txokotan egondako haurren argazkiak jasotzen dituzten CDak eskuragarri egongo dira urritik aurrera Amarrun Iudotekan (Ola kalea 1). Argazkien CDA jasotzeko ordutegia honakoa da 17:00etatik 20:00etara.

**Ikasturte hasiera Estudio del pintor akademian**

Heldu, zein umeentzako margo klaseak hasi dira Estudio del Pintor akademian. Ez da matrikularik ordaindu behar eta ordutegi malguak dituzte. Interesatuak hurbildu Urko Plaza 1 zenbakira, Sasota edo deitu 943 367 731 telefono zenbakira.

**Margo eta marrazki eskola**

Lasarte-Oria Bizilagunen elkarteak gaztetxo eta helduentzat antolatzen dituen margo eta marrazki ikastarotako izen-emateko azken bi egunak 27a eta 29a dira, arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara, Iñigo de Loyola 12 behean duten egoitzan.

**Zitek-en ikasturte hasiera**

Zitek akademian kurso berria hasi da. Klase partikularrak jasotzea interatzen bazaizu, lekua daukazu. Informa zaituzte 943 36 31 06 telefonon edo egoitzan bertan astelehenetik ostiralera 15:00- 19:00 tartean.

**Beltzak-Ostadar Errugby Eskola**

Beltzak-Ostadar Errugby Eskola igande honetan, goizeko 9:00etan, egingo du denboraldiko lehenengo entrenamendua, Michelingo Kirol Gunean.

Eskolako arduradunek 2002ko abenduaren 31a baino lehen jaiotako haurrei deialdia egiten diete entrenamendura hurbildu eta kirol hau ezagutzeko.

Eskolan izena emateko hiru aukera daude, bata Ostadarreko bulegoan, bestea 666 321 059 telefono zenbakian edo beltzakrt.com web orrialdean.

**Buruntzaldea I.K.T.**

Buruntzaldeko Igeriketa Kirol taldeko neska-mutilek hasi dituzte 2010-2011 denboraldia prestatzeko entrenamenduak Udak Kiroldegiko igerilekuan. Arduradunek jakin arazi digutenez, denboraldi hasieran zehar taldean sartzeko aukera badago oraindik, beraz inor interesaturik egonez gero, haiekin harremanetan jarzea besterik ez du.

Informazioa nahi duenak 696 506 673 telefono zenbakira deitu, Ruben, edo iraillean zehar 18:00etatik 19:30era kiroldegian Borjagatik galdegin dezala.

**LOKEko gimnastika atala**

LOKEko gimnastika atalak gogora arazten du aurrebengimnastikako neskak urriaren 2an hasiko dituztela entrenamenduak. Izena emateko 676 872 029 telefonora deitu behar du interesatuak.

**Oharrak jartzeko:**

Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 366858  
txintxarri@txintxarri.info

ERREDAKZIOAK ITZULIA

Michelingo ESK Sindikatua

**Eskutitzak**

**Euskal Herrian beste greba bat behar da**

Botere ekonomikoek, espekulazio bankario eta finantzarioak eragindako krisi ekonomikoaren aitzakia hartuz, langileria europarrak azken bi mendeetan eskuratutako eskubide sozial eta laborekin akabatzen saiatzeran daude.

Estatu espainiarrean hasiera batean ekainean onartutako lan erreformak, langileen kanporatzea merkaturako subentzionatu egiten du, lan eskaintza eta hauen kalitatea sustatzekoan ezer ez egin gabe. Neurri hauei gainera, langabezia dauden

pertsona ugari, lan publiko, soldata eta garapenerako laguntzen murrizketa gehitu behar zaie hala nola, pensioak bere horretan uztea eta erretiratzeke adina 67 luzatuko dutenaren mehatxua ere gehitzen zaie.

Egoera honek baldintzatu zuen ekainaren 29an Euskadin ospatutako Greba Orokorrean milaka langilek parte hartu izana. Nahi eta nahiez jasan behar ditugun gobernuen politikak ekonomikoan, sozialean eta laborean bide aldaketa eskatu genien.

Herritarren eskaerei kasu egitetik urrun, alderdi politiko printzipaletatik bik (PSOE eta EAJ) Lan Erreforma okerrera eramanez. Izan ere, enpresetan etekinen behera-

kada eman dela edo emango denaren aurreikuspena izanik kanporatzearen kausa objektibo bezala ezarri da. Gainera, Madrid, Gasteiz eta Iruñeko gobernuak krisiaren karga eragin ez dugunen gainean ezartzen jarraitzen dute.

Ekaineko greba ez zen espedienteak betetzeko egin, ezta euskaldunak jada protesta egin dugula argudiatzeko. Egiantzen gauzak aldatzea genuen helburu, enplegua, pertsonak eta eskubideak lehenengo postuan ezarri, eta horrela botere ekonomikoaren aurrean txotxongiloen antzera portatzen diren gobernuen aurre egitea.

Helburu horiek oraindik bete ez direnez, uste dugu ez

dela etxean geratzeko ordua, borrokatzen jarraitzearekin baizik, eta gainera, gure proposamenen esparrua gero eta gehiago zabalduz.

Eurak Europa osoan presionatzen badute, europar batasuneko iskuluekin, herritarren erantzuna ere europar mailan antolatu behar dugu. Sindikatuen Europar Konfederazioak irailaren 29rako borrokarako eguna finkatu, eta deia luzatu du. Estatu espainolean, hainbat sindikatuk egun berdinerako Greba Orokorreko deia egin dute jada, eta beste estatu batzuetan aukera hori ere eztabaizatzen ari da.

Egoerak erabateko erantzuna behar du, eta behar da aurrera ateratzeko, egin

beharra dugu. Irailaren 29an Greba Orokorrearekin bat egin behar dugu.

Guzti honengatik, Michelingo ESKen Sekzio Sindikalak irailaren 29an Greba Orokorra egin behar dela uste dugu. Sindikatu guztiei egun honetarako greba deialdiak egin ditzaten eskatzen diegu. Horrela, etortzen ari zaigun egoeraren aurrean presioa egiteko ahalmena murriztu ez dadin bestetan emandako zatiketa sindikalik ez errepikatzea eskatzen dugu.



Haurrak gaztelu puzgarrian jolasten ziren bitartean, euren gurasoek Michelingo frontoian jarri iren gangak ikusi eta erosketak lasai egiteko aukera ezin hobea izan zuten.

## Aukera bikainak stock ferian

Aukerako produktu eta prezioak izan dira aste-buru honetan Lasarte-Oriako Stock eta Saldoen III. Factory ferian. Michelingo frontoian herriko eta kanpoko hainbat dendek saldu gabe zituzten hainbat produktu jarri zituzten salgai prezio ezin-hobeetan eta poltsikoak husteko garai onenak ez badira ere herritar askok baliatu zuten aukera erosketak modu onean egiteko.

Iaz bezala bi egunetan izan da egun osoz zabalik Aterpea Elkarteak Lasarte-Oriako Udalaren laguntzarekin antolatutako azoka, 10:00etatik 20:00etara bitar-

tean, eta igandean larunbatetan baino herritar gehiago inguratu zen zein aukera zen ikusteko, eguraldiak ere gehiago lagundu zuen eta.

Saltzaileen artean batetik ez zeuden erabat gustura nahi baino jende gutxiago ibili delako larunbat eta igandean Stock azokan, baina bestetik egokia ikusten zuten honelako ekimena sobran dituzten produktuei irtenbidea emateko.

Hogei postu inguru jarri ziren, gehienak arropa eta oinetakoak saltzeko, baina baziren aulki, bitxi, liburu edota oporretako bidaiaak salgai jarri zituztenak ere.

Gainera, haurrentzako gaztelu puzgarria ere jarri zuten antolatzaileek haurrak jolasten ari ziren bitartean gurasoek postuak lasaitasunez ikusi zituzten.

Feriara sartzeko txartelak euro bat besterik ez zuten balio, eta gainera sarrerekin zozketa egin zuten igande iluntzean, azoka itxi eta gero.

Bi sariren zozketa egin zuten antolatzaileek: Enrique Barcenilla-ri egokitu zitzaion Martin Berasategi jatetxean bi pertsonentzako afaria eta Urko Arin-ek jasoko du beste saria, Urshuaia bidaia agentziak emandako Aran-eko bailaran Ribaita Hotelean asteburua. •



Lasarte-Oria eta inguruko dendariak stock-ean dituzten produktuak atera zituzten.



Hirugarren urtez jarraian antolatuta du Aterpea elkarteak Stock Azoka Michelingo frontoi estalian.



Batez ere, arropa erosteko aukera izan zen larunbat eta igandean egun osoz zabalik izan den azokan.